

**Zk-1781**

65/1998 DEKRETUA, martxoaren 31koa, Izki aldea parke natural deklaratzten duena.

Arabako Lurralte Historikoaren hegoekialdeko muturrean kokaturik dagoen Izki aldea oso-osorik sartzen da Arabako Mendialdea izeneko Eskualdean, non nekazaritza den jarduera ia bakarra eta populazio-dentsitatea oso urria den. Izki aldean izen bereko ibaiak eta ibaiadar ugarietik moldaturiko erliebe gorabeheratsu, leuna, da nagusi; ibaiak eremu hareatsuak zeharkatzen ditu ibilbide osoan, Ega ibaian bukatu arte. Izki Mendiaren erdigunetik urrundu ahala, al-dapak geroago eta handiagoak dira, eta landaredia geroago eta dibertsoagoa.

Inguruak kubeta-itxura du, eta bertako sakonean azpimarratzeko da ia etenik gabe hedatzen den ameztia (*Quercus pyrenaica*), munduko zabalenetarikoa. Kabetaren itxitura gisa, Gasteizko Mendien jarrainpena diren mendi garaiek eta amildegia malkartsuek mugatzen dute inguru guztia, hegoaldetik izan ezik, bertain, Ega ibaieren arroak Izki eta Kantabria Mendiak banatzen baititu.

Landare-formazioak oso ezberdinak eta ugariak dira —batzuk oso hedadura txikikoak—, litologikak, topografiak eta orientazioak horretarako baldintzak sortzen dituztelako. Basoetan, esaterako: ameztia, ar-tadiak, pagadi-mota ezberdinak, *Q. robur*-eko hariztiak, hagin-basoak eta ezkameztiak. Habitat berezien artean, berriz: zohikaztegiak eta ur karbonatuzko iturbegiak.

Izkiko harkaiztegietan hegazi interesgarriak bizi dira. Nabarmenenak: sai arrea (*Gyps fulvus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta belatz handia (*Falco peregrinus*).

Halaber, basoan fauna garrantzitsua babesten da; azpimarragarriena, okil ertaina (*Dendrocopos medius*): Izkiko populazioa penintsulan ezagutzen den garrantzitsuena da, eta hegazi honen banaketaren hego-muga markatzen du.

Ibai-ekosistemak ongi kontserbatzen dira, eta horren adierazgarri da bertako fauna ur garbietara aski espezializatua: desman piriniarra (*Galemys pyrenaicus*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) edo igaraba (*Lutra lutra*).

Azken batean, paisaia berezia edukitzeaz gain, garrantzi handiko landare-formazioak eta aniztasun botaniko handia dituen aldea denez gero, eta bertako hainbat habitatetan animali espezie ugari bizi direla kontuan hartuta, bidezkoa da inguru hau parke natural deklaratzea, Euskal Herriko natura babesteko

**N.º 1781**

DECRETO 65/1998, de 31 de marzo, por el que se declara Parque Natural el área de Izki.

El área de Izki, ubicada en el extremo Sureste del Territorio Histórico de Álava, está comprendida íntegramente dentro de la Comarca de la Montaña Alavesa, tradicionalmente agrícola de baja densidad de población. El área de Izki se caracteriza por sus relieves suaves y ondulados conformados por el cauce del río del mismo nombre y sus numerosos afluentes, el cual discurre por terreno arenoso hasta su desembocadura en el Ega. A medida que nos alejamos del punto central de los Montes de Izki las pendientes aumentan y la vegetación se diversifica.

La topografía tiene forma de cubeta, en cuyo fondo destaca la presencia, casi continua, de uno de los bosques de marojo más extensos del mundo (*Quercus pyrenaica*). Cerrándola en todo su borde existen montes altos y barrancos abruptos, continuación de los Montes de Vitoria, excepto por el sur en el que el valle del río Ega le separa de la Sierra de Cantabria.

Las diferentes litologías, topografías y orientaciones existentes en el área originan un elevado número de formaciones vegetales diferentes, algunas de las cuales de reducida representación territorial. Entre los bosques se pueden citar el marojal, diversas clases de hayedos, encinares, robledales de *Q. robur*, tejedas o aginales y quejigales. Entre los hábitats singulares se pueden encontrar diversas turberas y manantiales de aguas carbonatadas.

En los roquedos de Izki habita una interesante avifauna, entre la que destaca el buitre leonado (*Gyps fulvus*), el águila real (*Aquila chrysaetos*), el alimoche (*Neophron percnopterus*) y el halcón peregrino (*Falco peregrinus*).

La extensa área arbolada da cobijo a una interesante fauna forestal, cuya especie más significativa es el pico mediano (*Dendrocopos medius*). La población asentada en Izki es la más importante de las conocidas en la península y constituye el límite meridional de distribución de este pícido.

El buen estado de conservación de los ecosistemas fluviales queda patente con la especialísima fauna que lo habita, con especies características de aguas limpias, como el desmán del Pirineo (*Galemys pyrenaicus*), el visón europeo (*Mustela lutreola*) o la nutria (*Lutra lutra*).

En definitiva, el paisaje singular de este área, sus importantes formaciones vegetales, el gran número de especies de la fauna que encuentran asentamiento en la diversidad de hábitats existentes, y su variedad botánica, han justificado la inclusión de Izki dentro de la relación de áreas previstas en las Directrices de

ekainaren 30eko 16/1994 Legearen babesean, eta horretarako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta «Euskal Landa-Injurunea garatzeko Jarduera Plana, 1997-2000» izenekoan jasotako aldeen zerrendan sartuz.

Horretarako, eta ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 18. atalean aurreikusitakoa betetzeko, Izki aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onetsi da martxoaren 31ko 64/1997 Dekretuaren bidez; bertan, Parke Naturalak hartuko duen eremua azaltzen da.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko martxoaren 31n egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### **1. atala.- Xedea.**

Dekretu honen xedea, Euskal Herriko natura baseteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen III. idazpuruan ezarritakoaren itzalpean, Izki aldea baseteko araubide juridiko berezia ezartzea da, inguru hori parke natural deklaratzu.

##### **2. atala.- Helburuak.**

Izki alderako martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez onetsi den Natur Baliabideen Antolamendurako Planak ezarritako artezpideen barruan, araubide juridiko berezi horrek helburu hauek izango ditu:

a) Parkearen eremuan dauden flora, fauna, gea, paisaia eta ekosistemas babestu, zaindu eta, behar denean, lehengo egoerara itzularaztea.

b) Aldeko gizarte eta ekonomi alderdiak sustatzea, natur baliabideen arrazoizko erabilera oinarriturik.

c) Ingurunea babesten eta zaintzen laguntzen duten nekazaritza, abelzaintza eta basogintza jarduera tradizionalak hobetzeko, berreskuratzeko eta ezartzeko ahaleginak suspertzea.

d) Aldeko natur balioen ezagutza eta gozamen erazkoa suspertzea, hezkuntza, kultura, olgeta, turismo eta gizarte eta ekonomia aldetik interesgarriak diren jarduerak burutuz.

e) Ikerketa zientifika eta funtsezko prozesu ecológiken azterketa bultzatzea.

##### **3. atala.- Lurralde-eremua.**

1.- Martxoaren 31ko 64/1998 Dekretuaren bidez onetsitako Natur Baliabideen Antolamendurako Planaen deskribaturiko eta irudikaturiko eremua hartuko du Izkiko Parke Naturalak bere baitan.

Ordenación Territorial y en el Plan de Actuación para el desarrollo del Medio Rural Vasco 1997-2000, para su declaración como Parque Natural, al amparo de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

A tal efecto, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 18 de la Ley 16/1994, se aprueba por Decreto 64/1997, de 31 de marzo, el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Izki, en el que se describe el área que se propone para su declaración como Parque Natural.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación del Consejo de Gobierno, en su reunión de 31 de marzo de 1998.

#### DISPONGO:

##### **Artículo 1.- Objeto.**

Es objeto del presente Decreto establecer un régimen jurídico especial de protección para el área de Izki mediante su declaración como Parque Natural, al amparo de lo establecido en el título III de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

##### **Artículo 2.- Finalidad.**

Dentro de las directrices establecidas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, aprobado para el área de Izki por Decreto 64/1998, de 31 de marzo, dicho régimen jurídico especial tendrá las siguientes finalidades:

a) La protección, conservación y, en su caso, establecimiento de la flora, fauna, gea, paisaje, así como del conjunto de los ecosistemas existentes en el ámbito del Parque.

b) Promover la potenciación social y económica del área, basada en la utilización racional de los recursos naturales.

c) Fomentar la mejora, recuperación e implantación de las actividades productivas tradicionales de carácter agrícola, ganadero y forestal que contribuyen a la preservación y protección activa del medio físico.

d) Fomentar el conocimiento y disfrute ordenado de los valores naturales de la zona, a través del desarrollo de actividades de interés educativo, cultural, recreativo, turístico y socio-económico.

e) Fomentar la investigación científica y el estudio de los procesos ecológicos esenciales.

##### **Artículo 3.- Ámbito territorial.**

1.- El Parque Natural de Izki comprenderá el área geográfica descrita y grafiada en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales aprobado por Decreto 64/1998, de 31 de marzo.

2.- Izkiko Parke Naturalak 9.143 ha-ko eremua biltzen du bere baitan, Arabako Lurralde Historikoko Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezuko udalei dagokiena.

#### **4. atala.- Inguruko babes-aldea.**

1.- Natur baliabideen babes osoa bermatzeko, eta ekologiak eta paisaiak kanpoko eraginik jasan ez dezaten, Parkearen inguruko babes-aldea ezartzen da, Parke Naturalaren kanpoko mugaren inguruko 100 metroko lur-zerrenda alegia, beti ere Arabako Lurralde Historikoaren barruan. Hortik kanpo uzten dira: Arraia-Maeztuko Udalerrriaren arau subsidiarioetan landa-lur urbano gisa deklaratutakoa, Bernedoko arau subsidiarioetan lur urbano gisa deklaratutakoa, eta Bujandako landa-gunea, Arabako Lurralde Historikoko arau subsidiarioetan xedatutakoarekin bat.

2.- Inguruko babes-aldean, Izki parke natural deklaratzera bultzatu duten helburuak edota Natur Baliabideen Antolamenurako Planean ezarritakoak gauzatzeko oztopoa edo eragozpena izan daitekeen edozein jarduketa burutzeko, beharrezkoa izango da kudeaketarako organo arduradunaren baimena.

3.- Inguru hau parke natural deklaratzera bultzatu duten eta 30/1992 Legearen 54.1.f) atalean biltzen diren helburuei dagokienez, Parkeko egoera fisiko edo biologikoa uki edo ezertan alda dezakeen edozein jarduera mugatu edo eten ahal izango du, inguruko babes-aldean, Parke Naturalaren kudeaketaz arduratuko den organoak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54.1.f) atalean ezarritakoarekin bat etorriz.

#### **5. atala.- Eragin sozio-ekonomikoaren menpeko aldea.**

Arabako Lurralde Historikoko Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezu udalak hartuko dira eragin sozio-ekonomikoaren menpeko aldetzat, 16/1994 Legearen 22. atalean aurreikusitakoari dagokionez.

#### **6. atala.- Parkearen kudeaketa.**

1.- Izkiko Parke Naturalaren kudeaketa Arabako Lurralde Historikoko foru-organo eskudunari dago-kio.

2.- Parke Naturaleko organo kudeatzaileak Parkeko zuzendari-artatzailea izendatuko du. Zuzendari-artatzailearen eginkizunak 16/1994 Legearen 34. atalean ezarritakoak eta beren beregi esleitzent zaizkionak izango dira.

#### **7. atala.- Parke Naturaleko Patronatoa.**

1.- 16/1994 Legearen III. idazpuruko VIII. atalburuan aurreikusitakoa betez, patronato bat sortuko da, Izkiko Parke Naturalaren organo aholkulari eta kolaboratzaile gisa.

2.- Patronatuak osoko bilkura eta batzorde iraunkorren bidez jardungo du.

2.- El Parque Natural de Izki abarca una superficie de 9.143 Ha, correspondiente a los términos municipales, del Territorio Histórico de Álava, de Arraia-Maeztu, Bernedo y Campezo.

#### **Artículo 4.- Zona periférica de protección.**

1.- A fin de garantizar una completa protección de los recursos naturales y evitar los posibles impactos ecológicos y paisajísticos procedentes del exterior, se establece una zona periférica de protección que estará constituida por una franja de terreno de 100 metros alrededor del límite exterior del Parque Natural dentro del Territorio Histórico de Álava. Se excluyen los terrenos señalados como suelo urbano rural en las normas subsidiarias del municipio de Arraia-Maeztu, los señalados como suelo urbano en las normas subsidiarias del municipio de Bernedo y el núcleo rural de Bujanda, de acuerdo con la normas subsidiarias del Territorio Histórico Álava.

2.- En la zona periférica de protección, toda actuación que pueda impedir o dificultar la consecución de los objetivos que motivan la declaración de Izki como Parque Natural así como los establecidos en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, deberá ser autorizado por el órgano gestor.

3.- El órgano gestor del Parque Natural podrá, en la zona periférica de protección, y con arreglo a lo establecido en el artículo 54.1.f) de la Ley 30/1992, de 26 de diciembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, limitar o suspender cualquier actividad que pueda afectar o alterar la realidad física o biológica del Parque Natural.

#### **Artículo 5.- Área de influencia socio-económica.**

Se declara área de influencia socio-económica los términos municipales del Territorio Histórico de Álava de Arraia-Maeztu, Bernedo y Campezo a los efectos previstos en el artículo 22 de la Ley 16/1994.

#### **Artículo 6.- Gestión del Parque.**

1.- La Gestión del Parque Natural de Izki corresponderá al órgano foral competente del Territorio Histórico de Álava.

2.- El Órgano Gestor del Parque Natural nombrará un Director Conservador del Parque, que tendrá como funciones las establecidas en el artículo 34 de la Ley 16/1994 y aquéllas que expresamente se le encuvienden.

#### **Artículo 7.- Patronato del Parque Natural.**

1.- De conformidad con lo previsto en el Capítulo VIII del Título III de la Ley 16/1994, se constituirá un Patronato como órgano asesor y de colaboración del Parque Natural de Izki.

2.- El Patronato funcionará en pleno y en Comisión Permanente.

3.- Patronatuko kideak, lehendakari moduan jardungo duen Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritzako foru-diputatuaz gainera, honako hauek izango dira:

- a) Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkari bat.
- b) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren ordezkari bat.
- c) Arabako nekazaritzako erakunde profesionalen ordezkari bat.
- d) Izkiko Parke Naturalean jarduten diren ehiztarien elkartetako ordezkari bat.
- e) Ingurunearekin zerikusia duten Arabako elkarre zientifikoen ordezkari bat.
- f) Arabako elkarteko ekologisten eta naturzaleen ordezkari bat.
- g) Izki Garai eta Izki Behereko Batzen ordezkari bat.
- h) Izki Mendialdeko Nekazaritza Elkartearen ordezkari bat.
- i) Arraia-Maeztuko Udalaren ordezkari bat.
- j) Bernedoko Udalaren ordezkari bat.
- k) Arraia-Maeztuko Udalerririko Administrazio Batzordeen ordezkari bi.
- l) Bernedoko Udalerririko Administrazio Batzordeen ordezkari bi.
- ll) Kanpezuko Udalaren eta Administrazio Batzordeen ordezkari bat.
- m) Arabako Mendi Federazioaren ordezkari bat.
- n) Zuzendari-artatzailea.

4.- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko funtzionario batek, Patronatoko zuzendariak izendatuak, jardungo du idazkari gisa.

#### **8. atala.- Batzorde Iraunkorra.**

1.- Patronatoaren baitan, eta haren menpean, Batzorde Iraunkorra eratuko da. Batzordekideak, lehendakariaz gainera, honako hauek izango dira:

- a) Eusko Jaurlaritzako Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkaria.
- b) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren ordezkaria.
- c) Eragindako udalen ordezkari bat.
- d) Eragindako administrazio-batzordeen ordezkari bat.

3.- El Patronato estará integrado el Diputado Foral de Agricultura de la Diputación Foral de Álava que actuará como Presidente, y además por los siguientes miembros:

- a) Un representante del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.
  - b) Un representante del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.
  - c) Un representante de las Organizaciones Profesionales Agrarias de Álava.
  - d) Un representante de Clubes o Sociedades de Cazadores, cuyo ámbito de actuación se encuentre dentro del Parque Natural de Izki.
  - e) Un representante de las Asociaciones Científicas de Álava, relacionadas con el Medio Natural.
  - f) Un representante de las Asociaciones Ecologistas y Conservacionistas de Álava.
  - g) Un representante de la Asociación de las Juntas Tradicionales de Izki Alto e Izki Bajo.
  - h) Un representante de la Asociación de Agricultura de Montaña Izki.
  - i) Un representante del Ayuntamiento de Arraia-Maeztu.
  - j) Un representante del Ayuntamiento de Bernedo.
  - k) Dos representantes de las Juntas Administrativas del Municipio de Arraia-Maeztu.
  - l) Dos representantes de las Juntas Administrativas del Municipio de Bernedo.
  - ll) Un representante del Ayuntamiento y de las Juntas Administrativas de Campezo.
  - m) Un representante de la Federación Alavesa de Montaña.
  - n) El Director Conservador.
- 4.- Actuará como Secretario del Patronato una persona nombrada por el Presidente de entre funcionarios del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.

#### **Artículo 8.- Comisión Permanente.**

1.- En el seno del Patronato y dependiente del mismo se constituirá una Comisión Permanente que estará integrada, además de por su Presidente, por los siguientes miembros:

- a) El representante del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.
- b) El representante del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.
- c) Un representante del conjunto de Ayuntamientos afectados.
- d) Un representante de las Juntas Administrativas afectadas.

- e) Zuzendari-artatzailea.
- f) Patronatoan parte hartzen duten gainerako taldeen ordezkarri bat.
- 2.- Patronatoko idazkariak jardungo du Batzorde Iraunkorreko idazkari.
- 3.- Patronatoak bere barne araubidean eskuordetzen dizkion eginkizunak beteko ditu Batzorde Iraunkorrak.
- 9. atala.**- Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana.
- Natur Baliabideen Antolamendurako Plana garatzeko, Parke Naturalaren kudeaketaz arduratuko den foru-organoak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana egingo du, 16/1994 Legearen 27., 28. eta 29. ataletan ezarritako epeen, epe-mugen, baldintzen eta prozeduraren arabera.
- 10. atala.**- Herri-onura eta kalte-ordinak.
- 1.- Izki parke natural deklaratzeak inguru herri-onuratzat hartza dakar; ukituriko ondasun eta esku-bideak desjabetzeari dagokionez.
- 2.- Natur Baliabideen Antolamendurako Planak eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak parke naturalaren eremurako ezarritakoak aplikatzearen ondorioz, jabetza pribatua edo legebidezko ondare-eskubide zein ondare-interesik kentzen bada, ukituriko titularrek kalte-ordinak egokia jasotzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.
- 11. atala.**- Eroslehetasun eta atzera eskuratzeko eskubidea.
- 1.- Arabako Foru Aldundiari dagokio, eskuduna den organoaren bidez, eroslehetasun eta atzera eskuratzeko eskubideen egikeratza Parkearen barruko lurrekin inter vivos egiten diren kostubidezko eskuadaketa guztieta.
- 2.- Eroslehetasun eta atzera eskuratzeko eskubideen egikeratza honako prozedura honen arabera gauzatuko da:
- a) Eskualdatzaileak eskualdaketaren funtsezko baldintzak sinesgarriro jakinaraziko dizkio Administrazioari, zeinek hiru hilabeteko epea izango baitu, eskualdaketaren jakinarazpenetik zenbatzen hasita, eroslehetasun eskubidea egikeratzeko. Epe hori eroslehetasun eskubidea erabili gabe igaroz gero, eskubide hori iraungi egingo da.
- b) Eskualdaketa egindakoan, bera bideratzen de-neko eskritura publikoaren kopia sinesgarria bidaliko dio eskualdatzaileak administrazio-organo jarduleari; eskritura lehen aipatutako jakinarazpena obratu dela zehaztu beharko da, bera gabe eskualdaketa ezin inskriba baitaiteke Jabetza Errejistroan.
- e) El Director-Conservador.
- f) Un representante del resto de colectivos incluidos en el Patronato.
- 2.- Actuará como Secretario quien lo sea del Patronato.
- 3.- La Comisión Permanente ejercerá las funciones que le delegue el Patronato en sus normas de régimen interno.
- Artículo 9.**- Plan Rector de Uso y Gestión.
- En desarrollo del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales el órgano foral gestor del Parque Natural elaborará el Plan Rector de Uso y Gestión, en los plazos, términos, condiciones y procedimiento establecido en los artículos 27, 28 y 29 de la Ley 16/1994.
- Artículo 10.**- Utilidad Pública e Indemnizaciones.
- 1.- La declaración de Izki como Parque Natural lleva aparejada la de utilidad pública a efectos expropiatorios de los bienes y derechos afectados.
- 2.- La privación singular de la propiedad privada o de los derechos e intereses patrimoniales legítimos, con motivo de la aplicación de las determinaciones establecidas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y en el Plan Rector de Uso y Gestión en el ámbito del Parque Natural, implicará para los titulares afectados el derecho a obtener la pertinente indemnización, conforme a lo establecido en la legislación vigente.
- Artículo 11.**- Derecho de tanteo y retracto.
- 1.- Corresponde a la Diputación Foral de Álava, a través del órgano que resulte competente, el ejercicio de los derechos de tanteo y retracto en todas las transmisiones onerosas intervivos de terrenos situados en el interior del Parque.
- 2.- El ejercicio de los derechos de tanteo y retracto se efectuará conforme al procedimiento siguiente:
- a) El transmitente deberá notificar fehacientemente a la Administración actuante las condiciones esenciales de la transmisión, quien dispondrá de un plazo de 3 meses, a contar desde su notificación, para ejercitarse el derecho de tanteo. Transcurrido dicho plazo sin ejercicio del derecho de tanteo se producirá la caducidad del mismo.
- b) Realizada la transmisión, el transmitente remitirá al órgano administrativo actuante copia fehaciente de la escritura pública en que aquélla se hubiese instrumentado, la cual habrá de especificar el cumplimiento del citado deber de notificar sin el cual la transmisión no podrá inscribirse en el Registro de la Propiedad.

c) Eskualdatzaileari dagozkion eginbeharretarik edozein bete gabe, Parkearen barruan kokaturiko lurren titulartasunean aldaketarik badago, foru-organo eskudunak atzera eskuratzeko eskubidea erabil dezake urtebeteko epean, eskualdaketaren edo eskualdaketa gauzatu zeneko baldintza errealen berri duenekit zenbatzen hasita.

3.- Dagokien sailen baliabideen heinean, herri-administrazio eskudunak Parke Naturalaren barruko finken titulartasuna eskuratu ahal izateko, trukaketen bidezko jabetza-aldaaketak bultzatuko dira.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*- Ahalmena ematen zaio Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari dekretu hau bete eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.*- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko martxoaren 31n.

Lehendakariordea,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY

c) Si se realizase algún cambio de titularidad en los terrenos situados en el interior del Parque con incumplimiento de cualquiera de los deberes que incumben al transmitente, el órgano foral competente podrá ejercitar el derecho de retracto dentro del plazo de un año desde que tenga conocimiento de la realidad de la transmisión o de las condiciones reales en que la misma se produjo.

3.- Dentro de las posibilidades de los Departamentos correspondientes, se favorecerán los cambios de propiedad a través de permutas que permitan la adquisición, por la Administración Pública competente, de la titularidad de los predios situados en el interior del Parque Natural.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*- Se autoriza al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para que dicte las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*- Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 31 de marzo de 1998.

El Vicepresidente,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

#### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

#### Zk-1782

3/1998 FORU ARAUA, martxoaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko araudira egokitzearen 1997. urtean zehar onartutako foru dekretuak berresten dituena.

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak

Jakinazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuko araudira egokitzearen 1997. urtean zehar onartutako foru dekretuak berresten dituen martxoaren 18ko 3/1998 Foru Araua», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarrria zaien herritar guztiak, partikularrek nahiz agintariekin, bete eta betearazi dezaten.

#### JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

#### Nº-1782

NORMA FORAL 3/1998, de 18 de marzo, de Convalidación de los Decretos Forales de adaptación de la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la normativa vigente en territorio común, aprobados durante el año 1997.

El Diputado General de Gipuzkoa

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/1998 de 18 de marzo de Convalidación de los Decretos Forales de adaptación de la normativa fiscal del Territorio Histórico de Gipuzkoa a la normativa vigente en territorio común, aprobados durante el año 1997» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.